



## Diziplina anitzeko nazioarteko sinposioa **Mahatsondoak, ardoa eta hezkuntza** **XVIII. mendetik gaur egunera**

**Bordele**  
**2021eko maiatzak 19-20-21**

Mahatsondoak, ardoak eta hezkuntzak urrutiko gaiak diruditen arren, prestakuntzaren, ikasketa lekuen (bigarren hezkuntzako mahasgintza eskolak, unibertsitateak, enologia eskolak...) eta eskola jakintza tokien inguruan bil daitezke geografia, biologia edo artea bezalako diziplinen bitartez. Horrek guztiak, ordea, ez du eragozten eskolak ere mendekotasunen, alkoholismoaren eta horren gehiegikerien aurka lan egitea. Esan beharra dago mahatsondoak eta ardoak beti bildu izan dituztela pertsonak, benetako ondare kulturala sortuz mundu guztian zehar. Horrela, ardoa kultura, gizarte eta hezkuntza erreferentzia bihurtu da. Ondorioz, gaiok hiru ardatz nagusiren inguruan azter daitezke, eta Giza eta Gizarte Zientzietako hainbat diziplina biltzen dituzte, bai eta zientzietako eta literatura eta arteetako diziplinak ere.

### **1. Ardoa, hezkuntza, espazioa eta ingurumena**

Mahatsondoaren eta ardoa ontzearen kultura leku zehatzetan ikasten da; XVIII. mendean geroztik, keinu bat berregiteko edo lanbide bat ikasteko gai diren adituak prestatzeko beharra izan duten lekuetan, hain zuzen. Bordelen, 1880an, Agronomia eta Enologia Etxea sortu zen, baina 1956ra arte École Supérieure d'Oenologie eskolak ez zituen bere lehen ikasleak prestatu. XVIII. mendean egindako hausnarketa baten ondorio den prozesu hori antzekoa al da munduko beste ardogintza lurraldeetan? Nazioz haraindiko transferentziarik egon al da? Hedapen ekonomikoari, jarrera politikoei eta mahasgintza eta ardogintza krisiei lotutako egoeran izandako haustura eta jarraitutasun horiek azpimarratu nahi genituzke. Ardatz hori honako puntu hauen inguruan eraiki daiteke:

- Enologiaren sorrera.
- Mahasgintza irakasten duten erakundeen sorrera.
- Ardoak eta liburutegiak (eskoletakoak, unibertsitateetakoak).
- Historia eta hezkuntza ondarea: mahastiaren eta ardoaren objektuak ikastetxean.
- Mahastien paisaiak eta irakaskuntza.
- Mahastia, ardoaren garapen jasagarria eta biodibertsiterako hezkuntza.
- Arteak, eskola eta ardoak.
- Literatura, filosofia, prestakuntza eta ardoak.
- Ardoaren hezkuntza eta kultura digitala.

### **2. Ardoak, ezagutzak eta jakintzak ikastea eta transmititzea.**

Ardogintzan lan egiteak zera eskatzen du: lanean ikasitako keinu enpirikoetatik XVIII. mendean eta, bereziki, XIX. mendean, eliteen lidergoaren pean egituratu zen ezagutza kodetuago batera igarotzea. Jakintzen transmisioa itunen edo testu liburuen bidez egin izan da, baina eliteek eskolen sorreran inbertitzen jakin izan zuten –esaterako, Rothschild baroiak Pauillacen eta Sauterneseko Lur Saluces markesak–, nekazaritzako langile gazteei prestakuntza maila nahikoa emateko XIX. mendearen amaieran. Ardatz horrek galdera hauek egitera bultzatzen gaitzake: Hori bezalako eliteen



inbertsiorik egon al da aldi berean munduko beste mahasgintzako eta ardogintzako eskualde batzuetan? Zer nolako ikaskuntza eta egiten jakitea eskainiko ditu horrelako hezkuntzak?

- Bide profesioaletan ardogintzari lotutako lanbideak ikastea.
- Eskola diziplinak eta ardoa.
- Mahasgintzaren eta ardogintzaren gaia testu liburuen bitartez: idatzi, ardoa erakusteko.
- Irakasleen prestakuntza.
- Ezagutzak eta egiten jakitea transmititzea.
- Nola irudikatzen du margolariak edo artistak ardoa eskolan?

### 3. Ardoa, osasuna eta eskola ingurunea

XIX. mendean, arauketak garatu zirenean eta eskola higienismoa areagotu zenean, alkoholak eragiten dituen kalteez ohartu ziren. Orduan jabetu ziren agintaritza publikoak eskola eragile garrantzitsu izan daitekeela eta izan behar dela, eta horrela da gaur egun ere. Beraz, haurrek eskuetan eusten duten litroko botila gorria, oraindik XX. mendean margolanetan eta argazkietan agertzen dena, poliki-poliki desagertzen joango da ikasleen janari otarretxotik. Alkoholismoaren aurkako borrokaren gaiari herritar informatua gaitzeaz arduratzen zen maisuak heldu zion. Interesgarria izango litzateke epe luzeko gai hori honako ikuspuntu hauen inguruan lantzea:

- Ardoa, haurtzarora eta transmisioa.
- Eskola eta alkoholaren aurkako borroka.
- Eskolako legedia eta ardoa.
- Osasunerako zein pedagogia?
- Ardoa eta gaztarora: Sozializazioa edo bazterketa?
- Ardoa, mendekotasunak, irudikapenak.
- Hezkuntza praktikak eta ardoaren kulturak.

**Sinposioko hizkuntza ofizialak:** frantsesa, ingelesa, gaztelania, italiera, okzitaniera eta euskara. Aktak frantsesez.

Komunikazioen laburpenen eskuorria komunikazioa eman den hizkuntzan.

#### Egutegia

- 2019ko irailetik 2020ko urtarrilaren 31ra: Komunikazio proposamenak aurkeztea [symposium-vin-et-education-2021@u-bordeaux.fr](mailto:symposium-vin-et-education-2021@u-bordeaux.fr)
- 2020ko otsaila-martxoa: Komunikazio proposamenei erantzutea.
- 2020ko urria, komunikazioaren behin betiko testua bidaltzea.

#### Antolaketa batzordea:

CEMMC-UBM : Marguerite Figeac, Céline Piot.

E3D-UB : Marie-Anne Chateaufreud.

GARAIAN-UPV/EHU ikerketa taldea: Luis M. Naya, Paulí Dávila, Joana Miguelena.